

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Rivabellosako (Araba) udal igerilekuko ontzia eta nasa eraberritzeko obraren kontratazioa

Udalbatzaren 2016ko azaroaren 14ko Erabakiaren arabera, iragarki honen bidez prozedura irekirako deia egiten da, ekonomia eskaintzarik onena eta hainbat esleipen irizpide kontuan izanda, Rivabellosako (Arabako udal igerilekuko ontzia eta nasa eraberritzeko obraren kontratua esleitzeko, datu hauekin bat etorritz:

1. Erakunde esleitzaila: Datu orokorrak eta argibideak eskuratzeko datuak:

a) Erakundea: Erriberabeitiko Udala

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko:

Erriberabeitiko Udala

San Martin plaza, 1

Rivabellosa 01213 (Araba)

Telefonoa: 945-355116

Faxa: 945-355085

Posta elektronikoa: arbaja.admin@ayto.alava.net

Kontratzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.euskadi.eus eta www.riberabaja.eus.

Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2017ko abenduaren 20a.

c) Espediente zenbakia: 12/2016

2. Kontratuaren xedea:

a) Mota: obra kontratua

b) Azalpena: Rivabellosako (Araba) udal igerilekuko ontzia eta eta nasa eraberritzea.

c) Gauzatzeko lekua: Francisco Echanove kalea, 10. 01213-Rivabellosa

d) Obra gauzatzeko epea: 4 hilabete.

e) CPV. 45212212-5.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak:

A. Automatikoki zenbatu daitezkeen irizpideak (gehienez 81 puntu), handienetik txikienera puntuatuko dira:

1.) Ekonomia eskaintza: 60 puntu

— Batez besteko beheratzea, ehuneko hiru puntuz handituta, ez baldin bada beheratze handiena baino handiagoa:

45,00 puntu eman beheratzeen batez bestekoa baino hiru puntu gutxiagoko beheratzea duen eskaintzari, eta beheratze handiena duen eskaintza 60,00 puntutara linealki handitu. Beste zentzu batean, lizitazio oinarrian dagoen eskaintza zero baliora linealki gutxitzea.

— Batez besteko beheratzea, ehuneko hiru puntuz handituta, beheratze handiena baino handiagoa baldin bada:

Lizitazio oinarrian dagoen eskaintzari zero puntu eman, eta beheratze handiena aurkezten duen eskaintza gehieneko puntuazioraino (60 puntutaraino) linealki handitu.

Horren ondorioetarako, "beheratze handiena" honi irizten zaio: aurkeztu direnetatik eskaintza ekonomiko baxuenarenari, baldin eta balio anormalak edo proportziogabeak aurkezteagatik atzera bota ez bada.

2.) Obraren berme epea luzatzea, 15 puntutan ezarrita.

Bermearen gutxieneko epea (urtebete) luzatzen duen eskaintzak lortuko ditu gehienez lor daitezkeen puntuak (15), eta gainerako eskaintzak, epe hori hobetzen baldin badute, 3 punturekin puntuatuko dira berme epea handitzen den urte bakoitzeko. Urtebeteko berme epea luzatzen ez duten eskaintzek ez dute punturik lortuko; hau da, puntuazioa zero izango da. Gehieneko epea, zeinaren gainera berme epearen luzapena ez den kontuan hartuko puntuazioari begira, bost (5) urte izango da. Ondorioz, obraren berme epea bost urte baino gehiagoz luzatzen duen edozein eskaintzak hamabost (15) puntu lortuko ditu atal honetan.

3.) Eskainitako epea: 6 puntu.

0 puntutik 6 puntutaraino, gehienez ere. Epearen laburtzea 2 punturekin baloratuko da zortzigarren klausulan adierazten den gauzatze epea laburtzen den aste bakoitzeko.

B. Balio judizio baten arabera neurtzekoak diren irizpideak (gehienez 19 puntu):

1) Proposamen teknikoa; gehienez: 14 puntu

Memoriak obraren eraikuntza prozesuaren barruan egin beharreko lanen analisia jaso behar du, lanak gauzatzeko metodologia egokia adieraziz eta bidezkotuz, lizitazioarekin lanak gauzatzeko erabakitako baliabide materialen, ekipo mekanikoen eta neurketa tresneria duten langile teknikoen antolaketa barne izanik. Azpikontratazio ehunekoak, aurreikusitako enpresa azpikontratuak eta material hornitzaile garrantzitsuenak. Memoria horretan, nahitaez adierazi behar du eraikuntza eta eraisketa hondakinekin zer egingo den, eskainitako prezioaren justifikazio moduan.

— Eraikitze memoria	1 p.
— Lanen metodologia eta programazioa	6 p.
— Baliabide materialak, makineria eta zehaztasuneko neurketa tresnak	2 p.
— Obrari atxikitako teknikariak	2 p.
— Azpikontratatuak enpresak eta material hornitzaileak	2 p.
— Eraikuntzako eta eraisketako hondakinekin zer egingo den	1 p.

Hori guztia (indizeak, taulak, grafikoak eta literatura) gehienez ere DIN A4 neurriko 10 orrialdetan jaso behar du. Gehienezko hedadura hori gainditzen duten eskaintzak ez dira onartuko.

2) Obraren programazioa: 5 puntu

Lan programa osoa izan behar da, eta bertan obra gauzatzeko aurretik jotzen den guztirako epea azaldu behar du.

Programaren xehetasun maila, jardueren eta giza baliabideen eta lagungarrien garapena, jardueri atxikitako errendimenduak, programaren koherentzia eta, beraz, epea betetzeko bermea baloratuko dira.

Lan programa DIN A3 orri batean (1) aurkeztuko da, beharrezkotzat jotzen diren oharrekin.

Memoriaren edo obra programazioaren bidez, kontratistak eskainitako prezioa susmatzeko modua ematen duten eskaintza guztiak kanporatu egingo dira.

4. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa: 219.866,18 euro, BEZa barne.

5. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua:

a) Zenbateko garbia: 219.866,18 euro. Zenbatekoa, guztira: 266.038,08 euro.

6. Eskatutako bermeak.

Behin-behinekoa: ez

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena: C taldea, 2 azpitaldea, b kategoria.

C taldea, 6 azpitaldea, c kategoria.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena, ondoko baliabide hauetako edozeinen bidez egiaztatuko da:

– Urteko negozioen zenbatekoa, lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren agirietan eskatutakoaren berdina (270.000,00 euro) edo handiagoa.

– Lanbide arriskuen eta erantzukizun zibilaren kalte-ordain aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria, arriskua ezbehar bakoitzeko gutxienez 300.000,00 euroko kalte-ordainarekin estali behar duena. Betekizun hau, asegurataileak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da (horretan, aseguraturako zenbatekoak eta arriskuak eta asegurua mugaguna jaso behar dira), eta asegurua izenpetu, luzatu edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez, bidezkoa den kasuetan.

c) Teknika eta lanbide kaudimena, bide hauetatik egiaztatuko da:

– Azken hamar urtean gauzatutako obren zerrenda aurkeztu beharko da, obra garrantzitsuenak ongi gauzatu direlako ziurtagiriarekin abalaturatuta; ziurtagiri horietan, obren zenbatekoa, egunak eta gauzatu ziren lekua adierazi behar dira, eta zehaztu beharko da lanbidea arautzen duten erregelen arabera egin zirenetz eta normaltasunez ongi burutu zirenetz. Organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako lanak, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada; aldiz, hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiri baten bidez, eta halakorik ezean, enpresaburuaren aitopenen bidez. Enpresaburuak egiaztatu beharko du kontratu honen (219.866,18 euro, BEZa aparte) % 100 edo gehiago gauzatu dela aipatutako aldian obra gehien gauzatu den urtean, kontratu honen xede direnen izaera bera edo antzekoa duten obretan. Kontratuaren xedeari dagokionez, egindako zerbitzuak edo lanak baliozkotzeko irizpidetzat hartuko da 452122 digituak dituzten CPV kodeekin bat etortzea.

– Kontratu gauzatzean enpresaburuak aplikatu ahal dituen ingurumen kudeaketako neurriak adieraztea.

– Enpresaburuak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatia adieraztea, asmo hori izanez gero.

8. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: Abenduaren 26a

b) Eskakerak aurkezteko tokia:

Erakundea: Erriberabeitiko Udaletxea

Helbidea: San Martin plaza, 1.

Herria: 01213-Rivabellosa (Araba)

c) Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: sei hilabete.

9. Eskaintzak irekitzea:

a) A gutun azala: eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta bosgarren lanegunean, goizeko 10:00etan, baldin eta posta zerbitzuen bitartez bidali diren eskaintzak jaso badira. C eta B gutun azalak, hurrengo egunetan.

b) Helbidea: Erriberabeitiko Udaletxea.

San Martin plaza, 1.

Rivabellosa 01213 (Araba)

10. Gastuak: lizitazio iragarkiak edo iragarkiek, esleipenak eta kontratua egiteak sortutako gastuak eta zergak, esleipendunaren kontu izango dira.

Rivabellosa, 2016ko azaroaren 18a

Alkatea

PEIO RUIZ GARCÍA